

4. DIRU SARRERAK



Gure enpresaren helburu nagusia mozkinak maximizatzea da, hau da, ahalik eta etekin ekonomiko handiena lortzea.

Behin helburu hori lortzen dugunean, irabazitako mozkinen portzentaje bat berriro inbertitzeko erabiliko genuke.

Inbertsio horiek oso garrantzitsuak direla uste dugu, produktua etengabe hobetzeko aukera ematen digutelako, bai kalitateari bai funtzionaltasunari dagokionez. Horrez gain, inbertsioei esker gure enpresa pixkanaka indartu ahal izango genuke, eta etorkizunean merkatuan modu egonkor eta lehiakorrean finkatu.

Diru-sarreraren iturri nagusia bizikleta elektrikoaren salmenta izango da, gure produktu nagusia delako. Gainera, gaur egun gero eta jende gehiagok aukeratzen ditu bizikleta elektrikoak, bai ingurumenarekiko errespetu handiagoa dutelako, bai garraiobide praktiko eta eraginkorra direlako. Horregatik, uste dugu merkatuan eskaera handia dagoela produktu mota honentzat, eta horrek gure enpresaren bideragarritasuna bermatzen lagunduko duela.

Hala ere, gure bezeroei ahalik eta erosotasun eta erraztasun handienak eskaintzea ere gure lehentasunetako bat da. Horregatik, ordainketa-metodo desberdinak onartuko ditugu, bezero bakoitzak egokiena iruditzen zaiona aukeratu ahal izateko. Besteak beste, eskudirua, txartel bidezko ordainketak, banku-transferentziak eta antzeko beste aukera batzuk erabilgarri egongo dira, erosketa prozesua ahalik eta errazena izan dadin.